


Euskal AEko industria-prezioak % 1,0 jaitsi dira 2020ko urrian aurreko hilaren aldean

2019ko urriaren aldean, industriako prezioek % 6,0 egin dute behera

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 1,0 jaitsi dira 2020ko urrian aurreko hilaren aldean. Urriko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) -% 6,0 izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du ezen, 2020ko urrian, *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 1,8ko igoera), *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 0,9ko igoera) eta *Botiken fabrikazioa* (% 0,8ko igoera) izeneko sektoreek izan dituztela prezioetako hazkunderik handienak, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, prezioetan sektore hauetan izan dira hilabete arteko beherakadarik handienak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 7,5eko murrizketarekin), *Erauzketa-industriak* (% 1,9ko jaitsierarekin) eta *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa zein Industria kimikoa* (bietan -% 1,2ko aldaketarekin).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, *Kontsumo-ondasunen* prezioak, oro har, % 0,8 igo dira aurreko hilaren aldean, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* azpisektorean % 0,9ko igoera izan delako, ezen *Kontsumo-ondasun iraunkorren* azpisektorean,

aldiz, % 0,1 jaitsi dira. *Energiaren prezioak* % 3,9 jaitsi dira, *Bitarteko ondasunenak* % 0,3 eta *Ekipo-ondasunenak* % 0,1.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Urria

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2020urr / 2020ira	2020urr / 2019urr
INDIZE OROKORRA	100,0	-1,0	-6,0
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	105,1	-1,9	-0,6
Manufaktura-industria	101,3	0,1	-3,3
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	106,1	0,9	2,7
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	107,8	-0,5	3,5
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	103,5	0,4	-2,8
Kokeak eta petrolioaren fintzen	84,3	1,8	-25,0
Industria kimikoa	106,3	-1,2	-2,1
Botiken fabrikazioa	109,2	0,8	0,4
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	98,9	-0,3	0,0
Metalurgia eta produktu metalikoak	101,3	-0,3	-1,1
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	103,7	-1,2	2,0
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	104,7	0,0	1,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,3	0,0	-4,1
Garraiorako materialen fabrikazioa	108,8	-0,1	3,2
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	106,0	-0,1	0,7
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	91,7	-7,5	-20,8
Ura	109,4	0,7	2,2
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	106,5	0,8	3,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,2	-0,1	0,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	106,9	0,9	3,4
Ekipo-ondasunak	107,9	-0,1	0,6
Bitarteko ondasunak	101,4	-0,3	-1,1
Energia	87,6	-3,9	-24,6

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan (2020ko urria 2019ko urriaren aldean) prezio-hazkunderik handienak honako adar hauei egokitu zaizkie: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 3,5eko igoerarekin), *Garraiorako materialen fabrikazioa* (% 3,2koarekin) eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 2,7koarekin). Prezioen jaitsierarik handienak, berriz, honako sektore hauei dagozkien: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 25,0ko jaitsiera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 20,8koa) eta *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 4,1ekoa).

Helburu ekonomikoaren arabera kontsumo-ondasun-talde handien prezioek urte arteko aldiaren izan duten aldakuntza positiboa izan da *Kontsumo-ondasunentzat* oro har, % 3,0ko igoera izan baitute; izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 3,4 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun*

iraunkorrenak % 0,8. Era berean, urte arteko terminoetan, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,6 igo dira. Aitzitik, prezioetan jaitsierak izan dituzte *Energiaren* sektoreak (% 24,6ko murrizketarekin) eta *Bitarteko ondasunenak* (% 1,1ekoarekin).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62